

MAITE GOÑI

Deskribapena: Kike Maite Goñirekin elkarrizketan ageri da kalean.

Kike: “Maite, nik normalean zure izena irakurri eta aldamenean IKT irakurtzen dut baina zer esan nahi dute sigla horiek?”

Maite: “Bueno IKT-ak dira Informazioa eta Komunikazio Teknologiak, hau da, baliabide informatikoak eta komunikazio tresnak eta hori guztia pixkat hartzen du.”

Kike: “Eta teknologia berriek zer ekarri diote irakaskuntzari, zer abantaila suposatzen dute?”

Maite: “Bueno, abantaila nik uste nuen duela urte batzuk gehixio ekarriko ziola, ez? Eta teknologia berriak ematen du aukera ba erabat errotika aldatzeko irakaskuntzan baina ez diogu etekina atera oraindik, ez? Eta hori esaten dudanean esan nahi dut ba ematen du aukera ikaslea ipintzeko ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren zentroan eta berak egiteko adibidez ba bere portfolio digitala osatzeko, edo berak erabakitzeko zer ikasi nahi duen eta zer ez, baliabidez josita dago internet, ordun hori ba irakaslearen gidaritzapean noski. Beste plano batera jeitsiz, ahotsarekin nahi duzuna egiteko, hizkuntzak ikasten ari baldin bazara, ahotsa grabatu, besteen iruzkinak edo proposamenak edo entzun eta hobetu, bisita birtualak museoetara, elkarlanean aritzeko aukera ematen du, ez? Ze orain ja ez da klaseko ordutegia bukatzen dela eta zuk jarraitu dezakezu fisikoki ez egonda ere ba elkarlanean ba wikien bitartez ba txateatzen lan egiten duzun bitartean.”

Kike: “Hala ere guraso asko beldurtuta sumatzen da.”

Maite: “Bai, neri askotan galdetu izan didate, ez? Hori, teknologia berriek zer ekarpen egin duten edo, nik uste det beldur hori uxatu egin behar dala, egin behar dena da hezkuntzan oso ondo alfabetizazio digitala eraman bai irakasleak eta bai ikasleak, orduan netzat oso oso inportantea da txikitatik edo interneteko plazara irtetzen diren unetik ba ja jakin behar dute nola kudeatu hori guztia.”

Kike: “Eta sarean ingelesez, sarean euskeraz...”

Maite: “Erantzuna oso begi-bistakoa da, ezta? Ingelesez asko eta asko. Gertatzen dana da euskarazko komunitatea, askotan esan dugu, txikia da baina oso ekimentsua, eta honekin lotuta oso garrantzitsua iruditzen zait estrategia bat egitea, ez? Estrategia bat garatzea interneterako, ze askotan geratzen da komunikabideak, mugikorrenzako aplikazioak, interneten euskararen presentzia ziurtatzeko, baina ez da hori bakarrik, ordun nik bai pixua jarriko nuke ba estrategia bat behar-beharrezkoa da ba biziraungo badugu, ez?”